

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

6457

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 13koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia-rena, Euskadiko Toki-Administrazio Publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien Gauzatu Energia programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Energiaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jardunak, betiere EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Horri dagokionez, 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian bildutako helburuak betetzera bideratutako hainbat ekintza garatzen ari da Energiaren Euskal Erakundea. Jarduketan horien artean aipatzekoak dira zenbait laguntza-programa, izan ere, programa horien bidez energia-efizientzia eta energia-berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia-jasangarritasunaren arau-zutabeak ezartzen ditu administrazio publikoen eremuan, energia-efizientzia bultzatzean, energia aurrerakin eta energia berriztagarrien sustapen eta inplementazioan oinarrituta.

Ildo beretik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, 2030erako Euskadiko Energiaren Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutako eta 4/2019 Lege horren argitaratze eta garapenarekin zehaztutako Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin bat etorritik, beharrezkoa den bultzada publikoarekin lagundu behar du energia-kontsumoaren efizientzia handitzeko eta baliabide berriztagarrien aprobetxamendua hobetzeko ahaleginean, baita energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzeko bidean ere, ingurumen-inpaktua murriztuz, eta kontsumorako energia-premien, eta, horren ondorioz, kanpo-baliabideen mendetasuna, txikiagotuz.

Horrenbestez, aurrerakin itzulgarrien programa hau diseinatu da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatutako udalaren eraikin publiko eta instalazioetan baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko eta energia-kontsumoaren efizientzia ahalbidetzeko ekintzak sustatzeko helburu nagusiarekin.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien Gauzatu Energia Programaren oinarri arautzaileak eta dagokion deialdia onartzea, programaren edukia Ebazpen honi eranskin gisa erantsen zaiolarik.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko Gauzatu Energia programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2021eko abenduaren 13a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.



ERANSKINA

Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien programa

GAUZATU ENERGIA

Oinarriak



Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien programa - GAUZATU ENERGIA

1. Programaren xedea, aurrerakinen deskribapena eta izaera

- 1.1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 5eko 2006/32/EB Zuzentarauak arau-esparru berri bat ezarri zuen, energiaren azken erabileran eta energia berriztagarrien eta energia-zerbitzuen erabileran efizientzia bermatzeko. Ildo horretan, sektore publikoari zeregin eredugarria betetzeko eskatzen zitzaion, energia aurrezteko eta efizientziako neurrien aplikazioari, energia berriztagarrien erabilerari eta energia-zerbitzuen kontratazioa sustatzeari dagokienez.

Geroago, 2006/32/EB zuzentaruak indargabetzen duen 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauak berretsi egin zuen Administrazio Publikoek energia-zerbitzuen kontratazioan bete beharreko eginkizun eredugarria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak (hemendik aurrera, «4/2019 Legea») energia-jasangarritasunaren arau-zutabeak ezartzen ditu administrazio publikoen eremuan, energia-efizientzia bultzatzean, energia aurreztean eta energia berriztagarrien sustapen eta inplementazioan oinarrituta.

Ildo beretik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, 2030erako Euskadiko Energiaren Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutako eta 4/2019 Lege horren argitaratze eta garapenarekin zehaztutako Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin bat etorritik, beharrezkoa den bultzada publikoarekin lagundu behar du energia-kontsumoaren efizientzia handitzeko eta baliabide berriztagarrien aprobetxamendua hobetzeko ahaleginean, baita energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzeko bidean ere, ingurumen-inpaktua murriztuz, eta kontsumorako energia-premien, eta, horren ondorioz, kanpo-baliabideen mendetasuna, txikiagotuz.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, «EAE») lurraldean kokatutako udalaren eraikin publiko eta instalazioetan baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko eta energia-kontsumoaren efizientzia ahalbidetzeko helburu nagusiarekin, Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien Gauzatu Energiaprograma hau argitaratzen da (hemendik aurrera, «programa edo aurrerakinen programa»).

- 1.2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoa betez, 2021eko urriaren 20an egindako bileran, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean «EEE») Zuzendaritza Kontseiluak erabaki zuen, besteak beste, 2021. urterako EEEn Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, aurrerakin-programa hau horren barruan dagoelarik.
- 1.3. Programa honen babesean emandako finantzaketa **interesik gabe itzultzeko aurrerakintzat hartuko** da, eta programaren **15. oinarrian** ezarritakoari jarraikiz arautuko da.
- 1.4. Aurrerakin-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren aurrerakin itzulgarriak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude Tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Estatuaren dirulaguntza politiken oinarritzko lanabesa da Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, Europar Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren ustezko dirulaguntzak identifikatzen dituen neurrian, aldeztu aurretik baimena zertan eman gabe. Era horretan, ustezko dirulaguntza horien legezkotasuna soil-soilik Erregelamenduaren eskakizun «aterialak betetzearen eta izapide edo tramite formal batzuk aurrera eramatearen mende dago. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak –2014ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dagoenak– jakinarazpen-salbuespena xedatzen du hamahiru dirulaguntza kategoriatarako; gainera,



kategoria horietako bakoitza baimendutako erregimen ugaritan azpizatu edo banatzen da. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak eskualde-helburua duten dirulaguntzak babesten ditu, baita ETEei eman beharreko laguntzak, ETEak finantzaketara iristeko laguntzak, eta ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren aldeko laguntzak ere.

Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duen Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamenduari jarraikiz (aurrerantzean, «651/2014 Erregelamendua») enpresatzat jotzen diren eskatzaileentzat (EBAO 2014 L 187), aurrerakin-programa honetan aurreikusitako aurrerakinak horren eremuan kokatzen dira, eta bereziki, jarraian azaltzen diren artikuluetan:

- 36. artikulua** «Inbertsiorako laguntzak, enpresei Batasunaren ingurumen-babesaren alorreko arauetan aurrera egiteko, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumeneko babes-maila areagotzeko aukera ematearren».
- 38. artikulua** «Inbertsiorako laguntzak energia-efizientziako neurrietarako».
- 40. artikulua** «Inbertsiorako laguntzak efizientzia handiko kogeneraziorako».
- 41. artikulua** «Inbertsiorako laguntzak iturri berriztagarrietatik eratorritako energia sustatzeko».
- 46. artikulua** «Inbertsiorako laguntzak berokuntza eta/edo hozte energetikoki efizienteko sistemetarako (district heating-cooling)».

- 1.5.** Aurrerakin-programa honen xedeetarako eta 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskineko 1. eta 2. artikuluetan araututakoari jarraikiz, enpresatzat hartzen da:

«Bere forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten edozein erakunde (eta jarduera ekonomikoa diogunean, merkatu jakin batean ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko xedea duen edozein jarduera esan nahi dugu). Bereziki, enpresatzat hartuko dira, bakarka edo familiakoekin, artisautzako edo bestelako jarduerak egiten dituzten entitateak, baita erregulartasunez jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duten pertsona sozietateak eta elkarteak ere».

Mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainen (ETEak) barne hartuko dira 250 pertsonari baino gehiagori lana emateaz gainera, urtean gehienez 50 milioi euroko negozio bolumena edo 43 milioi euroko balantze orokorra duten enpresak.

ETEen kategorian enpresa txikia honela definitzen da: gehienez 50 langile izaki, urtean gehienez 10 milioi euroko negozio-bolumena edo balantze orokorra duen enpresa.

- 1.6.** Aurrerakin-programa honen xedeetarako. eta 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskineko 3. artikuluan araututakoari jarraikiz:

1. «Enpresa autonomoa» da, 2. atalaren arabera enpresa elkartutzat edo 3. atalaren arabera lotutako enpresatzat jo ezin daitekeen enpresa.

2. «Enpresa elkartuak» dira, 3. atalaren arabera lotutako enpresatzat jo ezinean egonik, elkarren artean honako lotura hau daukatenak: enpresa batek (enpresa partaidea), bakarka edo lotutako enpresa batekin edo batzuekin batera, 3. atalaren arabera, beste enpresa baten (partaidetutako enpresa) kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago dauka.

Nolanahi ere, enpresa bat autonomotzat jo ahalko da, enpresa elkarturik gabe, nahiz eta % 25eko muga bete edo gainditu, honako inbertitzaile kategoria hauek biltzen direnean, eta, inbertitzaile baten edo batzuen eta dagokion enpresaren artean, 3. atalean deskribatutako loturak ez daudenean:

- a) partaidetza-sozietate publikoak; arrisku-kapitaleko sozietateak; pertsona fisikoak edo pertsona fisikoaren taldeak, arrisku-kapitaleko jarduera erregularren bat gauzatzeaz gain (inbertitzaile probidentzialak edo business angels), burtsa-kotizaziorik gabeko enpresetan beren funtsak inbertitzen dituztenak, betiere inbertitzaile probidentzial horiek enpresa berean egindako inbertsioa 1.250.000 eurotik beherakoa bada;



- b) unibertitateak edo irabazi-asmorik gabeko ikerketa-zentroak;
- c) inbertitzaile instituzionalak, eskualde-garapeneko funtsak barne;
- d) gehienez 10 milioi euroko urteko aurrekontua eta 5.000 biztanle dituzten toki-agintaritzak autonomoak.

3. «Lotutako enpresak» dira elkarren artean honako harreman hauetako bat dutenak:

- a) enpresa batek, beste enpresa baten akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak dauzka;
- b) enpresa batek beste enpresa baten administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko eskubidea dauka;
- c) enpresa batek beste bat mende hartzeko eskubidea dauka, harekin egindako kontratu bati edo bigarren enpresaren estatutu-klausula bati jarraikiz;
- d) enpresa batek, beste baten akzioduna izanik edo beste bati elkartuta egonik, bakarka kontrolatzen du, bigarren enpresako akziodun edo bazkideekin egindako akordio bati jarraikiz, bere akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak.

Enpresa batek bestea ez duela mende hartzen hartuko da aintzat, 2. ataleko bigarren paragrafoan zerrendatutako inbertitzaileek dagokion enpresaren kudeaketan zuzeneko edo zeharkako inplikaziorik ez dutenean, akziodunak diren heinean dagozkien eskubideei kalterik egin gabe.

Enpresa batekin edo batzuekin edota 2. atalean zerrendatutako inbertitzaileekin lehen paragrafoan jasotako harremanetako edozein duten enpresak ere lotutakotzat hartuko dira.

Lotutako enpresatzat hartuko dira, halaber, pertsona fisiko batekin edo elkarren artean ados jarrita diharduten pertsona fisikoen talde batekin harreman horietako bat duten enpresak, betiere, beren jardueraren edo jardueraren zati bat, erreferentziazko merkatu berean edo aldameneko merkatuetan gauzatzen badute.

«Aldameneko merkatutzat» joko da, dagokion merkatuaren justu aurretik edo ondotik kokatutako produktu edo zerbitzu baten merkatua.

4. 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatutako kasuetan izan ezik, enpresa bat ezin izango da ETetzat hartu, baldin eta bere kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago, zuzenean edo zeharka, erakunde publiko baten edo gehiagoren baterako edo bakarkako kontrolaren eraginpean badago.

5. Enpresek adierazpen bat egin behar dute beren sailkapenari (enpresa autonomoa, elkartua edo lotutakoa) eta 2. artikuluan aipatutako mugei dagozkien datuei dagokienez. Deklarazio hori egiteko aukera izango da nahiz eta kapital horren jabe nor den erabat zehazteko modurik ez izan kapital hori banatzeko erabilitako moduaren eraginez, eta kasu horretan enpresak fede onez adierazi behar du benetan uste duela bere kapitalaren % 25 edo gehiago beste enpresa batena ez dela edo elkarri lotutako beste enpresa batzuekin partekatzen ez duela. Adierazpen horiek gorabehera, nazioetako edo Batasuneko araudietan aurreikusitako kontrolak eta egiaztatzenak gauzatu beharko dira.

- 1.7. 651/2014 Erregelamenduaren barnean hartuta egonik laguntzaren xede diren proiektuek frogatu beharko dute aurrerakin itzulgarrien programa honen babesak eragin sustagarria duela (651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikulua). Xede horietarako, laguntzek eragin sustagarria dutela ulertuko da baldin eta onuradunak, dirulaguntzaren xede den proiektuan edo jardueran lanean hasi baino lehen, laguntza-eskaera bat aurkeztu badu, eta laguntza-eskaera horrek, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikuluan adierazitako informazioa jasotzen badu.

Horren ondorioz, aurrerakin-programa honen xedeetarako, inbertsio baten eskaera bat ez da onartuko baldin eta inbertsioa, 651/2014 Erregelamenduan jasota egonik, eskaera egin baino lehen egikaritzen hasi bada, jarduketaren, proiektuen edo lanen hasieratzat honako hauek hartuko direlarik:

- Dagokion lizitazio-iragarkia EBAOk gehigarrian edo kontratatzailearen profilean argitaratu zen data, baldin eta eskatzailea, bere izaera juridikoaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen eraginpean badago. Kontratu txikien kasuan, dagokion kontratuaren formalizazio-data hartuko da aintzat.



- Inbertsioak egikaritzeko dagozkion hornidura-, obra- eta/edo zerbitzu-kontratuen formalizazio-data, baldin eta eskatzailea, bere izaera juridikoari jarraikiz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginpean ez badago.

2. Onuradunak

2.1. Honako hauek izan daitezke programa honen deialdiaren xede diren aurrerakin itzulgarrien onuradun:

- a. Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeak.
- b. Udalerriak.
- c. Udalerrri mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoa betez.
- d. Toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak.
- e. Udal-enpresa publikoak, baldin eta, atal honetan aurreikusitako erakundeek horien kapital sozialean duten zuzeneko edo zeharkako partaidetza ehuneko 50etik gorakoa bada.
- f. Fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakundeko ordezkariak osatuta badago.
- g. Partzuergoak edo mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada,

betiere, EAEko lurraldean, aurrerakin-programa honetako **5., 6., 7. eta 8. oinarrietan** aurreikusitako inbertsioetako bat egiten badute.

2.2. Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategiena onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (aurrerantzean «**1/1997 Legegintzako Dekretua**») 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako pertsona edo erakunde hauek izan daitezke onuradun: aurrerakina emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeak, onuradunak izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: Dirulaguntzei buruzko Legearen 13.7 artikuluan eta Legegintzako 1/1997 Dekretuaren 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

2.3. Aurrerakinaren onuradunatzat hartzeko ezinbesteko baldintza izango da, aurrerakina eman aurretik zein emandako aurrerakina likidatu arte egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, gizarte-segurantzarekiko zergen inguruko betebeharrak eguneratuak edukitzea, eta, hala badagokio, baita dirulaguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.

2.4. Honako hauek ezin izango dira onuradun izan.

- a) Foru Aldundiak, haiei lotutako edo haien mendeko erakundeak barne, hau da, baldin eta, erakunde horietan, zuzenean edo zeharka, ehuneko 50etik gorako partaidetza badute, edo erakunde horiek mendean hartzen badituzte.
- b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Institutuzionala eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektorea osatzen duten erakundeak, 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- c) Dirulaguntzei buruzko Legearen 13.2 artikuluan eta/edo 1/1997 Legegintza Dekretuko 50.5 artikuluan aipatutako zirkunstantzietako batean dauden eskatzaileak, edota dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiboa jaso dutenak edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debeku bat ezarri zaienak.
- d) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.



- e) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikulua 4.a) eta 4.c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera:
- Berreskuratzeko emateke dagoen agindu baten eraginpean dauden enpresak, Batzordeak, alde zuzenetik, laguntza bat legez kanpokatutako eta barne-merkatuarekiko bateraezintzat jotzeko erabaki bat eman ondoren.
 - Krisian dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. atalaren zentzuan.

3. Balioespen- eta jarraipen-batzordea.

Programaren jarraipena egiteko eta erakundeen arteko elkarrizketan laguntzeko, Programa honetan esku hartzen duten alderdiek Balioespen eta Jarraipen Batzorde bat sortu dute, Finantzen Euskal Institutuko zuzendari nagusiaz edo hark izendatutako pertsona batez, eta EEEko zuzendari nagusiaz edo hark izendatutako pertsona batez osatua.

Balioespen eta Jarraipen Batzordeak bere funtzionamendu-arauak ezarri ahalko ditu, informazioa bere kideen artean ahalik eta modurik efizienteenean bideratzeko.

4. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea

Aurrerakin-programa honetarako zuzkidura ekonomikoa **laurogeita hamar milioi (90.000.000) euro** izango da, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan xede horretarako ezarritako kredituaren arabera. Finantzaketa-funtsaren zenbateko osoa, guztira, laurogeita hamar milioi euro izango da (90.000.000) euro.

Aurrerakin-programa honetarako eskaerak aurkezteko epea, EHAAn argitaratzen den egunaren ondoko egun balioduneko 08:00etan hasiko da, eta 2030eko abenduaren 31n amaituko, edo xede horretarako aurrekontua agortzen den unean.

Programa honek jarraipena izango du, aurkeztutako proiektu berrietan emandako proiektuetatik itzulitako aurrerakinak berrerabiliz. Nolanahi ere, 2030eko abenduaren 31tik aurrera, 16. oinarrian adierazitakoaren arabera itzulitako aurrerakinak ezin izango dira berrerabili aurkeztutako proiektu berrietarako aurrerakinak emateko.

Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da, EHAAn zein EEEren Interneteko helbidean: <http://www.eve.eus>

Osatuta dauden eta bideratzen ari diren eskabideei diruz ezin bazaie lagundu, programari urte bakoitzerako esleitutako zuzkidura edo aurrekontua amaitzeagatik, baztertu egingo dira, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez, bukatu aurretik aurrekontu-zuzkidura handitzea erabaki ezean, eta azken kasu hau gertatuz gero, bideratzen edo tramitatzen jarraituko da. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada (2030eko abenduaren 31), eskaerak behin-behineko erreserba-zerrendan erregistratu ahalko dira, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie, baldin eta aurrerakin-itzulketak berriak gertatzen badira, aurrekontua berriz ere zuzkitzeko modukoak, edota deialdiari aurrekontu berri bat eranstean bazaio. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezin eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte.

5. Energia-efizientzian hauta daitezkeen inbertsioak

Aurrerakin-programa honen esparruan hautagarritzat jotzen dira 5. oinarri honetan deskribatutako energia-efizientziako inbertsioak, eskatzaileek EAEko lurraldean egiten dituztenak, eta, 2021eko urtarrilaren 1etik, inbertsioak egikaritzeko erabilgarri dagoen gehieneko epearen muga-egunera bitarte egikaritu eta fakturatutako direnak, hau da, gehienez ere, honako epe honen barruan:

- Hemezortzi (18) hilabete aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik, oinarri honetan deskribatutako **b1**, **b2** eta **b3** jarduketetarako.



- Hamabi (12) hilabete aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik, oinarri honetan deskribatutako **a, b4, b5 eta b6** jarduketetarako.

651/2014 Erregelamendua aplikatu behar zaien eskatzaileen kasuan, 5. oinarri honetan deskribatutako inbertsioak, dagokion eskaera aurkezten den egunaren ondoko egunetik eta aurreko paragrafoan deskribatutako gehieneko epeetara doan aldiari egikaritu eta fakturatu beharko dira, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik (651/2014 Erregelamenduko 2.(23) artikulua).

Aurrerakin-programa honen esparruan finantza daitezkeen energia-efizientziako inbertsioak honako hauek dira:

- a. Kanpo-argiteria publikoa.** Atal honen barnean hartutako energia-jarduketak izango dira, A klaseko energia-kalifikazioa izanik, kanpo-argiteria publikoan energia elektrikoa murriztea ahalbidetuko dutenak, eta, horrez gain, Kanpo-argiteriako instalazioetarako energia-efizientziari buruzko Erregelamendua eta haren EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide teknikoak onartzen dituen azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuko preskripzioak betetzen dituztenak.
- b. Energia-efizientzia lehendik dauden eraikinetan.** Atal honen barruan hartuko diren energia-jarduketak izango dira lehendik dauden eraikinetan energia elektrikoaren eta/edo erregaien kontsumoa murriztea ahalbidetuko dutenak, eta, hobekuntza inplementatu ondoren, Erregistratutako Eraikinen Energia Efizientziaren Ziurtagiria aurkezten dutenak, EAEko eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeari eta haren kontrol- eta erregistro-prozedurari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren arabera.

Espezifikoki, honako inbertsio mota hauek finantzatu dira:

- b.1 Inguratzaile termikoa.** Neurri honen barnean hartuko dira, lehendik dagoen eraikineko inguratzaile termikoaren itxiturak ordeztan, energia elektrikoaren eta/edo erregaien kontsumoa murriztea ahalbidetuko duten energia-jarduketak.
- b.2 Klimatizazioko eta/edo ur bero sanitarioa sortzeko instalazioak.** Energia-efizientzia handiko instalazio berria, berokuntza, hoztea eta ur bero sanitarioa sortzeko helburuarekin erabilitako energia elektrikoa eta/edo erregai konbentzionalak kontsumitzeko dauden instalazio konbentzionalak ordeztuko dituztenak.
- b.3 Efizientzia handiko kogenerazio-instalazioak.** Lehendik dauden kogenerazio-instalazioak berritzea eta/edo energia-efizientzia handiko kogenerazio-instalazio berriak egikaritzea, energia elektrikoa eta termikoa modu konbinatuan sortzeko helburuarekin.
- b.4 Barne-argiteriako instalazioak.** Barne-argiteriako instalazioak ordezteko energia-efizientzia handiko teknologiak erabiltzen dituzten beste batzuekin; nolahi ere, energia-kontsumoaren murrizketa esanguratsua egiaztatu beharko da, baita horren ondoriozko ingurumen-hobekuntza ere.
- b.5. Udal-instalazioetan egindako beste jarduketa batzuk.** Energia kontsumitzen duten beste instalazio batzuei lotuta egonik, aurreko puntuetan azaldutako jarduketetan jasota ez dauden energia-jarduketak hartzen dira neurri honen barruan, esate baterako, energia-hobekuntzak igogailu eta eskailera mekanikoetan (efizientzia handiko motorrak, abiadura-erregulagailuak, igogailuetako kabinen barneko argiteria, etab.), ponpaketa-instalazioetan, etab. Ildo horretan, dagozkien instalazioen energia-kontsumoaren murrizketa handia egiazta dezaketen jarduketak baino ez dira aintzat hartuko.
- b.6 Energia-kudeaketa neurtzeko instalazioak.** Neurgailuak berritzea eta/edo energia kudeatzeko neurgailu berriak egikaritzea.

6. Inbertsio hautagarriak argindarra sortzeko energia berriztagarrietan

Aurrerakin-programa honen esparruan hautagarritzat jotzen dira 6. oinarri honetan deskribatutako energia berriztagarrietako inbertsioak, eskatzaileek EAEko lurraldean egiten dituztenak, eta, 2021eko urtarilaren 1etik inbertsioak egikaritzeko erabilgarri dagoen gehieneko epearen muga-egunera bitarte egikaritu eta fakturatutako direnak, hau da, gehienez ere, hemezortzi (18) hilabete, oinarri honetan deskribatutako jarduketetarako aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik.



651/2014 Erregelamendua aplikatu behar zaien eskatzaileen kasuan, 6. oinarri honetan deskribatutako inbertsioak, dagokion eskaeran aurkezten den egunaren ondoko egunetik aurreko paragrafoan deskribatutako gehieneko epeetara doan aldian egikaritu eta fakturatu beharko dira, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik (651/2014 Erregelamenduko 2.(23) artikulua).

Aurrerakin-programa honen esparruan jarduketa subentzionagarriak izango dira, isolatutako edo sare elektrikoari konektatutako instalazio berrietan argindarra sortzeko energia berriztagarrietan egindako inbertsioak, instalazio fotovoltaiko edo eolikoak zein minizentral hidroelektrikoak izan. Baita lehendik dauden minizentral hidroelektrikoak berritzea ere.

Bestetik, aldez aurretik aipatutako instalazio guztietarako biltegitratze-sistemak ere hartzen dira barnean.

7. Inbertsio hautagarriak produkzio termikorako energia berriztagarrietan

Aurrerakin-programa honen esparruan hautagarritzat jotzen dira 7. oinarri honetan deskribatutako energia berriztagarrietako inbertsioak, eskatzaileek EAeko lurraldean egiten dituztenak, eta, 2021eko urtarilaren 1etik inbertsioak egikaritzeko erabilgarri dagoen gehieneko epearen muga-egunera bitarte egikaritu eta fakturatuko direnak, hau da, gehienez ere, hemezortzi (18) hilabetea, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik.

651/2014 Erregelamendua aplikatu behar zaien eskatzaileen kasuan, 7. oinarri honetan deskribatutako inbertsioak, dagokion eskaera aurkezten den egunaren ondoko egunetik aurreko paragrafoan deskribatutako gehieneko epeetara doan aldian egikaritu eta fakturatu beharko dira, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik (651/2014 Erregelamenduko 2.(23) artikulua).

Aurrerakin-programa honen esparruan finantza daitezkeen produkzio termikorako energia berriztagarrietako inbertsioak honako hauek dira:

a. Biomasa-instalazioak:

- Lehendik dauden biomasa-instalazioak berritzea eta/edo instalazio berriak egikaritzea biomasa erabiliz, beroa sortzeko, eta, bidezko bada, hotza sortzeko aprobetxamendu termikorako.
Energia-instalazio berri horiek indibidualak, zentralizatuak edo district heating-cooling gisa konfiguratuak izan daitezke. Azken kasu horretan, banaketa-sarea ere finantzatu da.
Energia-instalazio horietako galdarek % 90eko edo hortik goragoko errendimendu nominala izan beharko dute.
- Biomasa erabiltzeko lehendik dauden instalazioetarako konexio berriak district heating-cooling moduan konfiguratutako galdaren bitartez, beroa sortzeko, eta, bidezko bada, hotza sortzeko ere bai; konexio berriak indibidualak edo zentralizatuak izan daitezke.

b. Aerotermiako/geotermiako/hidrotermiako bero-ponpak:

- Lehendik dauden aerotermiako/geotermiako/hidrotermiako instalazioak berritzea eta/edo ekipamendu-gela berriak egikaritzea, bero-ponpak erabiliz beroa sortzeko, eta, bidezko bada, hotza sortzeko aprobetxamendu termikorako.
Energia-instalazio berri horiek (ekipamendu-gelak) indibidualak, zentralizatuak edo district heating-cooling gisa konfiguratuak izan daitezke. Azken kasu horretan, banaketa-sarea ere finantzatu da.
Energia-instalazio horietako bero-ponpen urtaroen arabera errendimendua 2,5 edo handiagoa izango da.
- Bero-ponparen bidez energia darabilten instalazioetarako konexio berriak, district heating-cooling gisa konfiguratutako, beroa eta hotza sortzeko; konexio berriak indibidualak edo zentralizatuak izan daitezke.

c. Eguzki-instalazio termikoak:

- Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termiko berriak egikaritzea, kolektore lauekin, CPCekin edo huts-hodiek, ur bero sanitarioa eta berokuntza sortzeko.
9 W/(m²·°C)-tik beherako galera-koefiziente globala duten kaptadoreak onartuko dira soilik.



8. Inbertsio hautagarriak mugikortasun jasangarrian

Aurrerakin-programa honen esparruan hautagarritzat jotzen dira 8. oinarri honetan deskribatutako mugikortasun jasangarriko inbertsioak, eskatzaileek EAeko lurraldean egiten dituztenak, eta, 2021eko urtarrilaren 1etik inbertsioak egikaritzeko erabilgarri dagoen gehieneko epearen muga-egunera bitarte egikaritu eta fakturatuko direnak, hau da, gehienez ere, hamabi (12) hilabetean, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik. 651/2014 Erregelamendua aplikatu behar zaien eskatzaileen kasuan, 8. oinarri honetan deskribatutako inbertsioak, dagokion eskaera aurkezten den egunaren ondoko egunetik aurreko paragrafoan deskribatutako gehieneko epeetara doan aldi egikaritu eta fakturatu beharko dira, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik (651/2014 Erregelamenduko 2.(23) artikulua).

Aurrerakin-programa honen esparruan finantza daitezkeen mugikortasun jasangarriko inbertsioak honako hauek dira:

a. Ibilgailu motordunak

Ibilgailu elektrikoetarako betekizun orokorra izango da bateriaren energia-dentsitate masikoa 100 Wh/kg-tik gorakoa izatea. Ildo horretan, argi dago litiozko (Li) ioi-bateriek baldintza hori betetzen dutela, berezkoak dituzten ezaugarriak direla-eta.

a.1. Iau gurpil baino gutxiagoko ibilgailuak

- Ziklomotorrak, motozikletak, kuadrizikloak eta hiru gurpileko ibilgailuak, guztiak ere elektrikoak (L1e, L2e; L3e, L4e, L5e, L6e, L7e).

a.2. Ibilgailu arinak (M1, N1)

- Ibilgailu arin elektriko puruak.
- Ibilgailu arin hibrido entxufagarriak edo autonomia hedatuko elektrikoak.
- Hidrogeno bidezko ibilgailu arinak.

a.3. Ibilgailu astunak (M2, M3, N2, N3)

- Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak.
- Gas natural bidezko ibilgailu astunak (GNK edo GNL).
- Hidrogeno bidezko ibilgailu astunak.

a.4 Material mugikorra

Material mugikorra, matrikulazio-betebeharrarekin edo gabe, aireportuetako, portuetako eta meatze-, industria- eta zerbitzu-jardueretako garraio-zereginekin lotua.

- Material mugikor elektrikoak.
- Hidrogeno bidezko material mugikorra.

b. Kargatze elektrikoak eta erregai alternatiboak:

b.1. Lur gaineko garaje eta aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazio nagusiak.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko aurreinstalazio elektrikoak jarduketa subentzionaagarria izango da, baldin eta hoditeria nagusi bat biltzen badu eremu komunitarioetan barrena (hodiak, kanalak, erretiluak, etab.), aparkalekuko plazetan kokatutako kargatze-estazioetaraino bideratzeko moduan, behententziarako erregelamendu elektroteknikoaren ITC-BT-52 instrukzioaren 3.2 atalean deskribatutakoari jarraikiz.

b.2. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa, erabilera publikokoa zein pribatukoa, udal-flota kargatzeko.

b.3. Gas naturala, konprimatua eta/edo likidotua hornitzeko instalazioak, publikoak edo udal-erabilerakoak.

b.4. Hidrogenoa hornitzeko instalazioa.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetako eta gas naturala eta hidrogenoa hornitzeko instalazioetarako, kargatzeko edo hornitzeko terminalaz gainera, proiektua, obra zibila, ingeniari- eta kostuak eta obra-zuzendaritza ere kostu subentzionaagarritzat jotzen dira. Ordainketa-sistema, seinaleztatzea eta kudeaketa-, kontrol- eta segurtasun-sistema ere subentzionaagarria izango da.



c. Bizikletaren sustapena:

c.1. Bizikletak maileguan uzteko sistema publikoak ezartzea (udal bicisharing-a).

c.2. Bizikleten aparkaleku seguruak

Bizikletak segurtasunez aparkatzeko sistemak, erabiltzaile partikularrek edo bizikletak maileguz uzteko sistema publiko baten zati gisa erabiltzekoak.

Sistema horiek bide publikoan edo ibilgailuak aparkatzeko guneeetan kokatu beharko dira, eta kokapen espezifikoak bizikletaren erabilera errazteko dela justifikatu beharko da.

9. Kostu hautagarria

9.1 Kostu hautagarria mugatzea

1.- 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz enpresatzen jotzen ez diren eskatzaileak

Inbertsio-kostua kostu hautagarritzat hartuko da baldin eta hura egikaritzea ezinbestezkoa bada energia-aurrezteko lortzeko, aurreikusitako energia berriztagarrietako instalazioak egikaritzeko eta mugikortasun jasangarriaren alorreko jarduketak eskuratu edo egikaritzeko.

Energia-efizientziaren, energia berriztagarrien aprobetxamenduen, eta, proiektu motaren arabera bidezko bada, mugikortasun jasangarriaren eremuen barruan egikaritutako instalazioetan, kostu hautagarritzat hartuko dira, halaber, proiektu edo memoria teknikoaren kostua, zuzendaritza fakultatiboaren kostua, obra zibilaren kostuak, eta instalazioak legeztatze, lizentziak lortzeko eta obraren segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kostuak.

2.- 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz enpresatzen jotzen diren eskatzaileak

5. oinarria - Energia-efizientziako inbertsioak:

- **a), b.1) eta b.4) ataletan** kokatutako inbertsio hautagarrietarako:

Energia-efizientzian maila handiago bat lortzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu hautagarriak, eta honela zehaztuko dira:

- Energia-efizientziako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totalan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, energia-efizientziarekin lotutako kostu horiek hautagarriak izango dira.
- Gainerako kasu guztietan, energia-efizientziako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten aldean zehaztuko dira, hain zuzen ere, energia-efizientzia txikiagoarekin finantzaketarik gabe modu sinesgarrian gauzatu ahal izango zen inbertsio baten aldean (inbertsio konbentzionala); bi inbertsioetako kostuen arteko aldearen arabera zehaztuko da energia-efizientziarekin lotutako kostua, eta horixe izango da kostu hautagarria.

Energia-efizientzian maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira hautagarriak izango.

- **b.2) atalaren** barruan sartutako inbertsioetarako:

(i) Energia-efizientzian maila handiago bat lortzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu hautagarriak, eta honela zehaztuko dira:

- Energia-efizientziako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totalan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, energia-efizientziarekin lotutako kostu horiek hautagarriak izango dira.
- Gainerako kasu guztietan, energia-efizientziako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten aldean zehaztuko dira, hain zuzen ere, energia-efizientzia txikiagoarekin finantzaketarik gabe modu sinesgarrian gauzatu ahal izango zen inbertsio baten aldean (inbertsio konbentzionala); bi inbertsioetako kostuen arteko aldearen arabera zehaztuko da energia-efizientziarekin lotutako kostua, eta horixe izango da kostu hautagarria.



Energia-efizientzia maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira hautagarriak izango.

(ii) Nolanahi ere, energetikoki efizienteak diren berokuntza- eta hozte-sistemak egikaritzea xede duten jarduketetarako (district heating-cooling motakoak), inbertsio-kostu hautagarriak honela zehaztuko dira:

- Produkzio-instalaziorako, produkzio-sistema konbentzional baten aldean sistema energetikoki efiziente gisa funtzionatzen duten sorkuntza-unitate bat edo batzuk eraiki, zabaldu eta berritzeko behar diren kostu gehigarriak izango dira hautagarriak.
- Banaketa-sarerako, inbertsio-kostuak izango dira hautagarriak.

• **b.3) atalaren** barnean hartutako inbertsio hautagarrietarako:

Kostu hautagarriak izango dira instalazioak, kapazitate bereko argindar- edo berokuntza-sistema konbentzionalen aldean, efizientzia handiko kogenerazio-instalazio gisa funtziona dezan behar diren ekipamenduetan inbertsio gehigarriak egiteko kostuak, edo bestela, lehendik dagoen instalazioak efizientzia handiko atalasea betez gero, efizientzia hori hobetzeko inbertsio gehigarriak egiteko kostuak.

6. oinarria - Inbertsioak energia berriztagarrietan argindarra sortzeko:

Energia berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntza sustatzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu hautagarriak. Honela zehaztuko dira:

- Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntzako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totaletan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, esaterako, instalazio bati erantsitako osagai erraz identifikatzeko moduko baten antzera, energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energiarekin lotutako kostu horiek hautagarriak izango dira.
- Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako inbertsioaren kostuak antzeko inbertsio baten aldean identifika daitezkeenean, zehazkiago, ingurumena neurri txikiagoan errespetatuz eta finantzaketarik gabe, modu sinesgarrian gauzatu ahal izango zen inbertsio baten aldean (inbertsio konbentzionala), bi inbertsioetako kostuen arteko aldearen arabera zehaztuko da energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energiarekin lotutako kostua, eta horixe izango da kostu hautagarria.
- Tamaina txikiago instalazio jakin batzuen kasuan, ingurumena neurri txikiagoan errespetatzen duen inbertsio bat ezartzerik ez dagoenean tamaina mugatuko instalaziorik ezean, ingurumeneko babes-maila handiago bat lortzeko inbertsioaren kostu totalak izango dira kostu hautagarriak.

Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntzako maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira hautagarriak izango.

7. oinarria - Inbertsioak energia berriztagarrietan produkzio termikorako:

(i) Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntza sustatzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu hautagarriak. Honela zehaztuko dira:

- Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntzako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totaletan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, esaterako, lehendik dagoen instalazio bati erantsitako osagai erraz identifikatzeko moduko baten antzera, energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energiarekin lotutako kostu horiek hautagarriak izango dira.
- Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako inbertsioaren kostuak antzeko inbertsio baten aldean identifika daitezkeenean, zehazkiago, ingurumena neurri txikiagoan errespetatuz eta finantzaketarik gabe, modu sinesgarrian gauzatu ahal izango zen inbertsio baten aldean (inbertsio konbentzionala), bi inbertsioetako kostuen arteko aldearen arabera zehaztuko da energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energiarekin lotutako kostua, eta horixe izango da kostu hautagarria.



- Tamaina txikiko instalazio jakin batzuen kasuan, ingurumena neurri txikiagoan errespetatzen duen inbertsio bat ezartzerik ez dagoenean tamaina mugatuko instalaziorik ezean, ingurumeneko babes-maila handiago bat lortzeko inbertsioaren kostu totalak izango dira kostu hautagarriak.

Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-sorkuntzako maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira hautagarriak izango.

(ii) Nolanahi ere, district heating-cooling moduan konfiguratutako beroa —eta, bidezko bada, hoztea— sortzeko sistemak egikaritzea biltzen duten inbertsioetan, kostu hautagarriak honela zehaztuko dira:

- Sorkuntza-instalaziorako, sorkuntza-instalazio konbentzional baten aldean beroa —eta, bidezko bada, hoztea— sortzeko district heating-cooling moduan konfiguratutako sistema gisa funtzionatzen duten sorkuntza-unitate bat edo batzuk eraiki, zabaldu eta ordeztzeko behar diren kostu gehigarriak izango dira hautagarriak. Berokuntzako eta hozteko district heating-cooling moduko sistema energetikoki efizienteko parte izango dira inbertsioak.
- Banaketa-sarerako, inbertsio-kostuak izango dira kostu hautagarriak.
- Konexio berrietarako, beroa —eta, bidezko bada, hoztea— sortzeko district heating-cooling moduan konfiguratutako sistemako adar nagusitik abiatutako hoditeriaren inbertsio-kostuak izango dira kostu hautagarriak, baita trukagailuari eta gainerako elementu osagarriei dagozkien inbertsio-kostuak ere.

8. oinarria - Inbertsioak mugikortasun jasangarrian:

Europar Batasuneko arau aplikagarrietatik haratago joateko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu hautagarriak, edo bestela, Europar Batasunaren araurik ezean, ingurumeneko babes-maila igotzeko behar direnak. Honela zehaztuko dira:

- Ingurumen-babeserako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totaletan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, ingurumena babestearekin lotutako kostu horiek hautagarriak izango dira.
- Gainerako kasu guztietan, ingurumena babesteko inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten aldean zehaztuko dira, hain zuzen ere, ingurumena neurri txikiagoan errespetatuz eta finantzaketarik gabe, modu sinesgarrian gauzatu ahal izango zen inbertsio baten aldean (inbertsio konbentzionala); bi inbertsioetako kostuen arteko aldearen arabera zehaztuko da ingurumena babestearekin lotutako kostua, eta horixe izango da kostu hautagarria.

Energia-efizientzian maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira hautagarriak izango.

3.- Beste kontsiderazio batzuk

- Aurrerakin-programa honen 5., 6., 7. eta 8. oinarrietan jasotako jarduketetarako inbertsioetan, materialarekin eta laneskuearekin lotutako partida ekonomiko guztiak aurrerakinaren xede den instalazioari esleitu beharko zaizkio zuzenean.
- Zerga-kenkariak edo bestelako kargak barnean hartuz adieraziko dira kostu hautagarriak.
- Nolanahi ere, gastu subentzionagarritzat hartuko dira, soil-soilik, Dirulaguntzei buruzko Legearen 31. artikuluan xede horretarako ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

9.2 Kostu hautagarritzat hartuko ez direnak

Aurrerakin-programa honen barruan finantzatu beharreko inbertsio guztietarako ez dira hautagarritzat hartuko, oro har:

- Inbertsioaren eta langile propioen ondorio diren finantza-gastuak, baita lurra erostean ondorio direnak ere.
- Erabilitako ekipamenduak erosteko inbertsioak.
- Ekipamendu eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak.
- Zerbitzariak, inprimagailuak, eta oro har, mota guztietako ekipamendu ofimatikoak.



- Merkatu-azterlanak, bideragarritasun-analisi edo bideragarritasun-azterlanak, mota guztietako energia-auditoria partzial edo totalak, inbentarioak, jarduketa-planak, Klima eta Energia Jasangarriko Ekintza Planak eta mugikortasun-planak.
- Jarraipen-, aurrerabide- eta koordinazio-txostenak.
- BEZa ez da aintzat hartuko, salbu eta eskatzaileak hura berreskuratu edo konpentsatzeko aukerarik ez badu.
- Finantzetaren xede diren energia-instalazioen barnean energia kudeatzeko sistemak hartzen badira, datuak biltegitratzeko zerbitzarien kostua ez da hautagarritzat hartuko.
- Larrialdiko argiteria erabilgarri izatea behar duten energia-instalazioen kasuan, argiteria hori ez da kostu hautagarritzat hartuko.
- Energia-instalazioetan beharrezkotzat jotzen bada energia errektiboko konpentsagailu edo kondentsadoreetarako bateriak edukitzea, bateria horiek ez dira kostu hautagarritzat hartuko.
- Energia-instalazioetan beharrezkotzat jotzen bada instalazio elektrikoetarako erreferentziako gailu edo sistema konpaktu «urreztaile» bat edukitzea, ekipamenduak ez badu aurreztutako argindarraren berri ematen duen Ziurtagiririk jaso agente akreditatu baten eskutik, edo eraginpeko instalazioetan sortutako aurrezteak bermatzen ez baditu agente akreditatu baten Ziurtagiri baten bitartez, gailu hori ez da kostu hautagarritzat hartuko.
- Eta, oro har, argi zehaztu gabe egonik, aurrerakin-programa honen 5., 6. 7. eta 8. oinarrietan jasotako jarduketetarako inbertsoetarako aurreikusitako energia-helburuak lortzeko xedearekin zuzenean identifikatu ezin daitezkeen kostu guztiak.

10. Aurrerakinen zenbatekoa eta muga orokorrak

10.1. Aurrerakinen zenbatekoa

a) Aurrerakin itzulgarria

- a.1. Aurrerakin-programa honen 5., 6., 7. eta 8. oinarrietan jasotako jarduketak egikaritzen badira 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz enpresatzat jotzen ez diren eskatzaileen eskutik, kostu hautagarriaren % 70eko aurrerakin itzulgarria izango dute.

Horrez gain, tamaina txikiagoko udalerriei, eta zehazkiago 20.000 biztanle baino gutxiago dituztenei, aurrerakin-programa honetara iristeko bidea errazteko helburuarekin, aurrerakin itzulgarri gehigarri bat jaso ahalgo dute, ehunekotan kalkulatua udalerrri-tamainaren segmentazioari dagokionez, jarraian adierazitakoaren arabera:

Udalerriko biztanle kopurua	Aurrerakin itzulgarri gehigarria udalerriko tamainaren arabera (%)
5.000 edo gutxiago	+% 30
5.000 baino gehiago eta 20.000 baino gutxiago	+% 20

Udalaz gaindiko toki-erakundeentzat, eta, 2.1 oinarrian jasota egonik, udalerrri baten baino gehiagoren partaidetza duten gainerako onuradunentzat, erakunde eskatzailean parte hartzen duten udalerrri guztien biztanle kopuruen batura hartuko da kontuan.

Udalerrri bakoitzeko biztanle kopurua zenbatzeko, EUSTATen webgunean argitaratutako azken informazioa hartuko da kontuan.

- a.2 Aurrerakin-programa honen 5., 6., 7. eta 8. oinarrietan jasotako edozein jarduketaren inbertsioak egikaritzen badira 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz enpresatzat jotzen diren eskatzaileen eskutik, kostu hautagarriaren % 70eko aurrerakin itzulgarria izango dute, baina mugatuta nolana ere, laguntzaren intentsitateari dagokionez 651/2014 Erregelamenduan jarduketa subentzionatu bakoitzerako aurreikusitako gehieneko mugaren arabera.



b) Dirulaguntza gordinaren baliokide gisa kalkulaturako laguntza

Dirulaguntza gordinaren zenbateko baliokidea kalkulatzeko, honako erreferentzia hau hartuko da aintzat: eskaera aurkezteko unean eman behar den interesik gabeko aurrerakin itzulgarriaren antzeko ezaugarriak dauzkan mailegu baterako merkatuan indarrean dagoen interes-tasa.

Xede horietarako, merkatuko indarreko interes-tasatza hartuko da oinarritzko tasa, Batzordeak estatu-laguntzak berreskuratzeko indarreko interes-tasei buruz eta erreferentziako/eguneratzeko tasei buruz emandako Komunikazioari jarraikiz, oinarritzko 100 puntuko marjina gehituz (% 1), Batzordeak erreferentziako eta eguneratzeko tasak finkatzeko metodoaren berrikuspenari buruz emandako Komunikazioaren arabera (2008/c 14/02), egungo balioak kalkulatzeko eguneratze-tasa oinarritzko 100 puntuko marjina finko bat izanik (% 1), Komunikazio horretan ezarritako erreferentzia-tasaren oinarriaren gainean.

10.2. Aurrerakin itzulgarrien zenbatekoaren muga

Aurrerakin-deialdi honen esparruko edozein eremutan —energia-efizientzia, energia berriztagarriak eta mugikortasun jasagarria— gauzatzen diren jarduketek, gehienez ere, **miloi bat euroko** aurrerakin itzulgarria (**1.000.000**) euro izango dute proiektu bakoitzeko, eta onuradun bakoitzeko, berriz, aurrerakin itzulgarriaren zenbateko totala **hamar milioi (10.000.000) euro** izango da gehienez. Inoiz ere ez dira gaudituko aurrerakin-programa honen **10.1 oinarriari** jarduketa mota bakoitzerako ezarritako ehunekoak.

Aurrerakina itzultzeko denboraldia ezarriko da eskaera bakoitzean proposatutako inbertsioa itzultzeko («pay-back») aldiaren arabera eta hartan jasotako jarduketa guztietarako, gehienez ere **zazpi (7) urte** izanik inbertsioak egikaritzeko gehieneko epea amaitzen denez geroztik, eta epe hori ezin izango da inoiz ere luzatu.

Eskaera bakoitzeko 50.000 eurotik beherako kostu hautagarria duten inbertsioak ezin izango dira aurrerakin-programa honen onuradun izan.

10.3. Europako araudi aplikagarria

Eskatzaileak enpresatza jotzen badira 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, eta aurrerakin-eskaeraren eraginpeko proiektu edo jarduketaren arabera, Erregelamendu horren honako artikulua hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- 651/2014 Erregelamenduko 36.2.a eta 36.2.b artikulua - Onuradunari baimena eman beharko zaio bere jardueretatik eratorritako ingurumeneko babes-maila areagotzeko Batasuneko arau aplikagarriak gaudituz, Batasunarenak baino zorrotzagoak diren nahitaezko arau nazionalak izan edo ez, baita Batasuneko araurik ez dagoenean ere. Enpresak egokitzeko egiten baldin badira inbertsioak, dagoeneko hartu badira ere oraindik indarrean ez dauden Batasuneko arauetara egokitzeko, alegia, ez da laguntzarik emango.
- 651/2014 Erregelamenduko 38.2 artikulua - Energia-efizientziako neurriak: ez dira dirulaguntzaren xede izango enpresak Batasunean dagoeneko hartu diren arauetara egokitzeko egiten diren hobekuntzak, nahiz eta neurri horiek oraindik indarrean ez egon.
- 651/2014 Erregelamenduko 40.3 artikulua - Efizientzia handiko kogenerazioa: inbertsiorako laguntzak emango dira, soil-soilik, instalatu edo berritu berri diren kapazitateei loturik.
- 651/2014 Erregelamenduko 41.5 artikulua - Iturri berriztagarrietatik datorren energia sustatzea: inbertsiorako laguntzak instalazio berrietarako emango dira soilik. Instalazioa martxan jarri ondoren ez da laguntzarik emango edo gauzatuko.



10.4. Beste aurrerakin itzulgarri batzuekiko eta itzuli beharrik gabeko laguntzekiko bateraezintasun-erregimena

- a.- 651/2014 Erregelamenduaren arabera enpresatzat jotzen diren eskatzaileen kasuan, oinarri hauen babesean ematen diren aurrerakin itzulgarri guztiak bateragarriak izango dira, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berarekin eman ditzaketen **laguntzekin**, betiere, oro har hartuta eta ehunekotan, 651/2014 Erregelamenduan aurreikusitakoen maila bereko edo txikiagoko laguntza suposatzen badute.
- a.- 651/2014 Erregelamenduaren arabera enpresatzat jotzen ez diren eskatzaileen kasuan, oinarri hauen babesean ematen diren aurrerakin itzulgarriak bateragarriak izango dira, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berarekin eman ditzaketen **laguntzekin**, betiere, oro har hartuta, laguntzak kostu hautagarriaren % 100 gainditzen ez badu.

Beste erakunde batzuetatik datozen laguntzak gauzatzen badira EEEK aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena eman ondoren, onuradunak EEEri jakinarazi beharko dio (**17. oinarria**), eta laguntza multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza guztiz edo partzialki errebokatzeko dagokion Ebazpenaren bitartez jakinaraziko da, eta dagokion ordainketaren aurretik.

10.5. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatea edo kontratatzea

- a) Dirulaguntzei buruzko Legeko 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun batek azpikontratatzeko duela ulertuko da hirugarren batekin hitzartzen bada aurrerakinaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena. Onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, gorago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

- b) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako kontratazio-erregimena aplikatu behar ez zaien eskatzaileen kasuan soilik, Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, kontratuaren zenbatekoak gainditzen baditu Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak ezarritako zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), onuradunak gutxienez hiru (3) eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obra egiteko konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta aurrerakina eman baino lehen egiten baldin bada gastua (651/2014 Erregelamenduaren eraginpeko enpresen kasuan izan ezik, azken kasu horretan).

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta aukeraketa espreski justifikatu beharko da, aukeratua kalitate-prezio erlazio onena duen proposamena ez denean.

11. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta **Administrazio Elektronikaz** diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean «**21/2012 Dekretua**»), aurrerakin-programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak egingo dira Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz, Euskadi.eus webgunean eta EEEren webgunean eskuragarri dagoena (www.eve.eus).

Dirulaguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatiko horrekin eginez gero, era elektronikoan, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideaz diharduen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araber.

Eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat hartuko da zuzenketa egiten den eguna.

12. Aurrerakin itzulgarriaren eskaera

Aurrerakin itzulgarriaren eskaera eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa, **11. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, **4. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Zenbait jarduketa egitea aurreikusi bada, izaera berdinekoak edo desberdinekoak izan, eskaera bakar bat formalizatu beharko da, baina horrek ez du galarazten aurrerakin itzulgarriko eskaera berriak aurkeztea inbertsio berriak sortzen badira.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla jasotzen duten ziurtagiriak automatikoki egiaztatuko ditu EEEK, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzkoak izan ezik. Dena den, aurrerakin-eskaeraren baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Eskaera egiteko, honako dokumentazio hau aurkeztu eta formalizatu beharko da aplikazio informatikoaren bitartez:

651/2014 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen ez diren eskatzaileen kasuan.

a. Aurrerakin itzulgarriaren eskaera. Eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, baita aurrerakin-eskaeraren xede den inbertsio mota eta lokalizazioa eta haren datu zehatzak ere. Gainera, aplikazio informatiko horren bitartez honako adierazpen hauek formalizatuko dira:

- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, eskaeraren egunean egina.
- Laguntzak eskatu eta/edo jaso izanaren inguruko adierazpena, eskaeraren egunean egina.

b. Dokumentazio administratiboa

- Sinatzailearen (lege-ordezkaria) NANaren kopia.
- Alkatetza- edo kargu-izendapenaren ziurtagiria, eta, bidezko bada, eskrituraren, estatutuen edo eratze-egintzaren kopia eta ahalordetze-eskrituraren edo ordezkari-tza-egiaztagirien kopia.
- IFKaren kopia.
- Bidezko bada, eskrituraren, estatutuen eta/edo eratze-egintzaren kopia, baita ahalordetze-eskrituraren edo ordezkari-tza-egiaztagirien kopia ere.
- Bidezko bada, egiaztagiri edo ziurtagiri baten kopia, horren bitartez egiaztatu ahal izateko toki-erakundeek erakunde eskatzailean zuzenean edo zeharka duten partaidetza maioritarioa dela edo hura mendean dutela.
- Bidezko bada, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 52.2 artikulua betez, planteatutako eragiketaren aldeko esku-hartzeko txostena, non bereziki aztertuko diren toki-erakundeak hartatik erortzen diren betebeharrak aurre egiteko duen gaitasuna (horren barnean hartuko dira, nahitaez, eragiketa berriaren ondoriozko zorpetze-mailaren eta aurrezki garbiaren estimazioa). Horrez gain, eskatutako eragiketak ekitaldia ixtean aurrekontu-egonkortasunean izango duen inpaktuaren berri eman beharko da txosten horretan.
- Bidezko bada, udalaren kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria, onartutako finantza-saneamenduko edo zorra murrizteko planak bete ez izanari buruzkoa.



- Eskatzailearen titulartasunpeko kontuaren IBAN zenbakiaren banku-ziurtagiria, eta azkenean ebatziko den aurrerakina kontu horretan ordainduko da, behin aurrerakin-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak bete ondoren eskatzailea onuradun bihurtzen denean.
- EEeri egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten aurrerakin itzulgarriaren eskatzaileen kasuan, Foru Ogasunari egin beharreko ordainketetan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- EEeri egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten aurrerakin itzulgarriaren eskatzaileen kasuan, Giza Segurantzarekiko betebeharretan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Bidezko bada, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

651/2014 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen diren eskatzaileen kasuan.

a. Aurrerakin itzulgarriaren **eskaera**. Eskatzailearen datu orokorrak beteko dira, baita aurrerakin-eskaeraren xede den jarduketa mota eta lokalizazioa eta haren datu tekniko zehatzak ere. Gainera, aplikazio informatiko horren bitartez honako adierazpen hauek formalizatuko dira:

- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, eskaeraren egunean egina.
- Laguntzak eskatu eta/edo jaso izanaren inguruko adierazpena, eskaeraren egunean egina.
- 651/2014 Erregelamenduari xedeetarako enpresatzat hartzeko adierazpena.

b. Dokumentazio administratiboa

- Sinatzailearen (lege-ordezkarria) NANaren kopia.
- IFKaren kopia.
- Ahalordetze-eskiritzaren edo ordezkari-egiaztapenaren kopia.
- Eskiritzaren, estatutuen edo eratze-egintzaren kopia.
- Egiaztapen edo ziurtagiri baten kopia, horren bitartez egiaztatu ahal izateko toki-erakundeek erakunde eskatzailean zuzenean edo zeharka duten partaidetza maioritarioa dela edo hura mendean dutela.
- Auditatutako azken urteko kontuak.
- Bidezko bada, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 52.2 artikulua betez, planteatutako eragiketaren aldeko esku-hartzeko txostena, non bereziki aztertuko diren toki-erakundeak hartatik eratoritzen diren betebeharrak aurre egiteko duen gaitasuna (horren barnean hartuko dira, nahitaez, eragiketa berriaren ondoriozko zorpetze-mailaren eta aurrezki garbiaren estimazioa). Horrez gain, eskatutako eragiketak ekitaldia ixtean aurrekontu-egonkortasunean izango duen inpaktuaren berri eman beharko da txosten horretan.
- Bidezko bada, udalaren kontu-hartzaileak emandako Ziurtagiria, onartutako finantza-saneamenduko edo zorra murrizteko planak bete ez izanari buruzkoa.
- Eskatzailearen titulartasunpeko kontuaren IBAN zenbakiaren banku-ziurtagiria, eta azkenean ebatziko den aurrerakina kontu horretan ordainduko da, behin aurrerakin-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak bete ondoren eskatzailea onuradun bihurtzen denean.
- EEeri egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten aurrerakin itzulgarriaren eskatzaileen kasuan, Foru Ogasunari egin beharreko ordainketetan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- EEeri egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten aurrerakin itzulgarriaren eskatzaileen kasuan, Giza Segurantzarekiko betebeharretan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- 651/2014 Erregelamenduko 1. Eranskinen 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:
 - Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
 - Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.



- Bidezko bada, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Gainera, aurrerakin itzulgarriko eskaeraren inbertsioaren arabera, eta 2. oinarrian jasotako edozein onuradun motarentzat, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

c. Dokumentazio teknikoa

Aurreikusitako inbertsioaren eta urtean espero diren aurrezte energetiko (kWh/urtea) zein ekonomikoen (€/urtea) zerrrenda sinatua, aurrerakin-eskaeraren xede den jarduketa motaren arabera sailkatua.

5. oinarria - Energia-efizientziako inbertsioak:

- Egungo egoeraren eta proposatutako egoeraren deskripzio-memoria teknikoa, proiektuaren hasierako eta amaierako datak eta aurreikusitako energia-aurreztearen justifikazioa adieraziz.
- Aurrekontu xehatua, partida ekonomikoen arabera banandua. Proiektuaren barnean 5. oinarrian bildutakoen arteko zenbait jarduketa hartzen badira, jarduketa bakoitzak bere aurrekontu espezifikoak eduki beharko du. Bidezko bada, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du dokumentazio hori.
- Kanpo-argiteriako instalazioetarako Energia Efizientziaren Erregelamendua eta kanpo-argiteriako proiektuetarako jarraibide tekniko osagarriak (1890/2008 ED) betetzen direla dioen adierazpena.
- Proiektuaren energia-kalifikazioa eta kanpo-argiteriako proiektuetarako energia-kalifikazioaren justifikazioa (kanpo-argiteriako proiektuetarako Energia Efizientziari buruzko Erregelamenduen arabera).
- «Ohiko» inbertsioaren edo inbertsio «estandarren» kostua, 651/2014 Erregelamenduko 38., 40 eta 46. artikuluetan ezarritakoa betez. Dokumentu horrek erreferentzia egiten dio, «energia-efizientzia handikotzat» kalifikatutako energia-sistema bat ere aintzat hartzen ez duen oinarriko inbertsio baten eskaintza bati. Dokumentu hori 651/2014 Erregelamendua betez entregatu behar da, eta beraz, adierazitako erregelamenduen xedetarako enpresatzat jotzen diren eskatzaileek entregatu behar dute soilik.
- Egungo egoeraren gaineko argazki-erreportajea.

6. oinarria - Inbertsioak energia berriztagarrietan argindarra sortzeko:

- Egungo egoeraren eta proposatutako egoeraren deskripzio-memoria teknikoa, proiektuaren hasierako eta amaierako datak eta argindarra sortzeko instalazioaren potentzia instalatuaren justifikazioa adieraziz.
- Aurrekontu xehatua, partida ekonomikoen arabera banandua. Proiektuaren barnean hartzen badira 6. oinarrian bildutako jarduketetako batzuk, jarduketa bakoitzak bere aurrekontu espezifikoak eduki beharko du. Bidezko bada, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du dokumentazio hori.
- Minihidraulika-instalazioen kasuan, Emakida Administrazioaren kopia.

7. oinarria - Inbertsioak energia berriztagarrietan produkzio termikorako:

- Egungo egoeraren eta proposatutako egoeraren deskripzio-memoria teknikoa, proiektuaren hasierako eta amaierako datak eta produkzio termikorako instalazioaren potentzia instalatuaren justifikazioa adieraziz.
- Aurrekontu xehatua, partida ekonomikoen arabera banandua. Proiektuaren barnean hartzen badira 7. oinarrian bildutako jarduketetako batzuk, jarduketa bakoitzak bere aurrekontu espezifikoak eduki beharko du. Bidezko bada, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du dokumentazio hori.



8. oinarria - Inbertsioak mugikortasun jasangarrian:

- Egungo egoeraren eta proposatutako egoeraren deskripzio-memoria tekniko-ekonomikoa, proiektuaren hasierako eta amaierako datak, aurreikusitako energia-aurreztearen justifikazioa, eta partida ekonomikoen arabera banandutako eta xehatutako aurrekontua adieraziz. Proiektuaren barnean hartzen badira 8. oinarrian bildutako jarduketetako batzuk, jarduketa bakoitzak bere aurrekontu espezifikoak eduki beharko du.
- Ibilgailuetarako: ibilgailuaren dokumentazio teknikoa, haren propulzio-sistema frogatzen duena.
- Ibilgailu elektrikoaren kasuan, bateriaren energia-dentsitatea (edo justifikazioa, litiozkoa bada).

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

13. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

Aurrerakin itzulgarrien eskaeren ebazpenak bideratzeko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira eskaerak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira. Eskaera akastuna izanez gero, eta zuzendu behar bada, **12. oinarrian** adierazitakoa hartuko da aurkezpen-datatzat.

EEE Energiaren Euskal Erakundeak zuzendari nagusiak ebazpena eman eta modu elektronikoan (**11. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez) helaraziko dio eskatzaileari jakinarazpena sei (6) hilabeteko gehieneko epean, eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez bada, eskatzaileek gaitzetsizat hartu ahalko dituzte aurrerakin-eskaerak.

Ebazpenean honako hauek azalduko dira: (i) finantzaketaren xede diren inbertsioak, (ii) aurkeztutako inbertsioak (kopuru gordina, onuradunaren azaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) aurrerakin itzulgarria eta dirulaguntza gordina, (iv) Finantzen Euskal Institutuarekin formalizatu beharreko aurrerakin-kontratuko baldintzak, (v) interesgarritzat jotzen diren gainerako alderdiak, eta (vi), bidezko bada, ukatzeko arrazoiak.

Administrazio-bidea agortzen duen ebazpenaren aurka, eskatzaileak aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko du EEEko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena helarazten zaion egunaren hurrengo egunaz geroztik, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri zuzenean, Bilboko auzi-administrazioaren alorreko epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean ebazpenaren jakinarazpenaren egunaren hurrengo egunaz geroztik, hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez (hemendik aurrera, «**29/1998 Legea**»).

Aurrerakin itzulgarria emateko kontuan izandako baldintzetan egindako aldaketa orok, betiere onuraduna izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen badira, aurrerakin itzulgarria emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du aurrerakina arautzen duen araudian ezarritakoari jarraikiz (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorriz, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoaren eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**»), eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua betez, aurrerakin-programa hau amaitu eta gero, EEEk bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu aurrerakin-programa honi jarraikiz emango diren dirulaguntzak; eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

14. Aurrerakin itzulgarriko kontratua sinatzea



Behin aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena eman eta Finantzen Euskal Institutuari jakinarazi ondoren, dagokion poliza formalizatuko da onuradunaren eta Finantzen Euskal Institutuaren artean.

Finantzen Euskal Institutuak aurrerakin itzulgarriko kontratu bat idatziko du, programaren deialdiko oinarrietako baldintza eta betekizunak, eta EEEko zuzendari nagusiak eskatzaileari emateko Ebazpenean onartutako baldintzak betez.

15. Aurrerakinaren ordainketa

15.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak emandako izaera bereko laguntzak edo dirulaguntzen zenbatekoak itzultzeko dauzkaten erakundeek ezin izango dute aurrerakinaren ordainketa jaso.

Horrelako kasuetan, itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen jakin eta aztertu beharko da, hau da, borondatezko aldi edo bide betearazlean ote dagoen. Onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako Administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldi zorrik ez izatea. Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 21. artikulua).

15.2 Aurrerakin itzulgarrien ordainketa gauzatu da, betiere, aurrerakinaren zenbateko osoa ordainketa bakarrean ordainduta, Finantzen Euskal Institutuarekin aurrerakin-kontratua formalizatu ondoren eta aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpena jakinarazi eta gero.

15.3 Onuradunak xede horretarako adierazitako banku-kontuan gauzatu dira ordainketak.

15.4 Behin finantzaketaren xede den inbertsioaren egikaritzapena amaiturik, eta beranduenez, egikaritze-amaierako dataren ondoko hiru (3) hilabeteko epea mugaeguneratu aurretik, inbertsioaren amaiera justifikatzeko eskaera bideratu beharko da, eta EEERI entregatu beharko zaizkio aurrerakin itzulgarrien programa honek eskatutako frogagiri eta dokumentu administratibo eta tekniko guztiak.

Gehieneko egikaritze-epe desberdinak dituzten jarduketa mota bat baino gehiago dituzten eskaeren kasuan, Programa honen 5., 6. 7. eta 8. Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera, horietan handiena dena hartuko da egikaritzeko muga-eguntzat.

Justifikazio dokumentala gauzatu da aurrerakin-eskaeraren hasierako formalizazioarako erabiliko den aplikazio informatikoaren bitartez.

Justifikazio-esakera hori gauzatzeko, justifikatu beharreko espediente bakoitzerako honako dokumentazio hau formalizatu eta aurkeztu beharko da, argia, espezifikoa eta eguneratua izan beharko duena.

a. Justifikazio-eskaera. Dokumentu hori betetzearekin batera, *Inbertsioaren amaiera* jakinarazten da. Atal horretan, honako adierazpen hauek ere formalizatuko dira:

- Onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, justifikazio-egunean egina.
- Laguntzak eskatu eta/edo jaso izanaren adierazpena, justifikazio-egunean egina.

b. Dokumentazio administratiboa

- EEERI egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten eskatzaileen kasuan, Foru Ogasunari egin beharreko ordainketetan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.



- EEeri egiaztapenak automatikoki egiteko baimena eman ez dioten eskatzaileen kasuan, Giza Segurantzarekiko betebeharreran egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Bidezko bada, justifikazioaren eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboaren kopia aurkeztu beharko da.

c. Dokumentazio teknikoak:

- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako kontratazio-erregimenaren eraginpeko onuradunentzat, lizitazio-iragarkia dagokion kontratatzailearen profilean, kontrataziorako oinarri gisa baliatu diren agiriak, eta kontratua Esleitzeko Ebazpena.
- Onuradunaren eta enpresa kontratistaren artean formalizatutako kontratua, partida ekonomikoak xehatuta eta bananduta aurkeztu beharko direlarik. Erantsitako partida ekonomikoak dauzkan kontraturik ez da onartuko, baldin eta partida horiek galarazten badute azterlanaren garrantziko partida ekonomikoak bereiztea.
- Egindako inbertsioa justifikatzeko fakturak (jatorrizko kopiak), onuradunaren izenean emanak 2.1 oinarrian zehazten den bezala, bananduta, ekonomikoki balioztatuta, eta 5., 6., 7. eta 8. oinarrietan adierazitako epeen arabera datatuta.
Bost (5) fakturatik gora behar izan duten inbertsio guztietarako, laburpen-koadro bat aurkeztu beharko da fakturekin batera, baita horien zerrenda xehatua dakarren laburpen-koadro bat ere, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga-oinarria adierazita.
Obra-ziurtagiriei buruzko fakturak ematea eskatu duten inbertsio guztietarako, honako hauek aurkeztu beharko dira: 1) emandako faktura-ziurtagiri multzoa, 2) emandako faktura-ziurtagiri bakoitzari buruzko ziurtagiri-laburpenen multzoa, eta 3) emandako ziurtagiri bakoitzaren arabera egikaritutako partiden bilakaerari buruzko xehetasunen multzoa (laburpena eta faktura).
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: aurrerakin itzulgarriaren azken onuraduna, ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta finantzatu beharreko proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Instalazio Termikoaren Ziurtagiriaren kopia **5. oinarriko b) ataleko b.2) eta b.3) azpiataletan** eta Industria Erregistroaren **7. oinarrian** sartutako jarduketetarako.
- **5. oinarriko a) atalean** kokatutako jarduketetarako, proiektuaren energia-kalifikazioa eta kanpo-argiteriako proiektuetarako energia-kalifikazioaren justifikazioa (kanpo-argiteriako proiektuetarako Energia Efizientziari buruzko Erregelamenduaren arabera).
- **5. oinarriko b) ataleko b.1), b.2) eta b.3) azpiataletan** kokatutako jarduketetarako, erregistratutako eraikinaren Energia Efizientziaren Ziurtagiria (Eraikinetako hobekuntzetarako 2019ko otsailaren 26ko 25/2019 Errege Dekretuaren arabera).
- **6. oinarriko b) atalari** dagozkion sareari konektatutako argindarra sortzeko instalazioetarako, ustiapen-baimena edo zerbitzuan jartzeko akta entregatu beharko da, nahitaezkoa denean, eta Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria, mota guztietako instalazio elektrikoetarako behe-tentsioko Erregelamendu elektroteknikoaren arabera, enpresa instalatzaileak emana eta autonomia-erkidegoko eskumeneko organoak izapidetua, baita sorkuntza-elementuak zerbitzuan jarri izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere, eskumeneko organoaren zigiluarekin.
- Aurrerakinaren xede den energia-jarduketaren osagai nagusien argazkiak koloretan.
- Ibilgailu motordunei buruzko **8. oinarriko a. atalean** kokatutako jarduketetarako.
 - Ibilgailuaren txartel teknikoaren kopia.
 - Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia.
- Kargatze-tronkaleko azpiegiturari (aurreinstalazioa) buruzko **8. oinarriko b.1 atalean** kokatutako jarduketetarako; egindako jarduketaren deskripzio-memoria.
- **8. oinarriko b.2., b.3. eta b.4. atalean kokatutako jarduketetarako, hornidurako azpiegiturak (ez-tronkala):**
 - Instalazioaren memoria teknikoak edo proiektua.
 - Dagokion Lurralde Ordezkaritzan instalazioa legezatzeko egindako dokumentuaren kopia.
- Bizikletei buruzko **8. oinarriko c atalean** kokatutako jarduketetarako, egindako jarduketaren deskripzio-memoria, inbertsioaren justifikazio-egunean sistemak dauzkan ezaugarrien berri emanez, hala nola bizikleta erabilgarrien kopurua, ainguraketa kopurua, etab.



Aurkeztutako justifikazio-eskaerak osatu gabeak badira, akastunak badira, edo postaz edo presentzialki aurkeztu badira, onuradunari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaerazkiaren bidez, aurrerakin itzulgarriaren onuradunak zuzentze-jakinazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

EEEk ezin izango du inoiz zabaldu edo luzatu egiaztagiri guztiak entregatzeko epea. Dokumentazio justifikagarria dagokion epean aurkeztu ezean, aurrerakinaren zenbatekoa itzularaziko zaio onuradunari, eta Dirulaguntzei buruzko Legean ezartzen diren gainerako erantzukizun guztiak eskatuko zaizkio.

15.5 Justifikazio-eskaera bakoitzean eskatutako dokumentazioa jasotakoan, dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespena positiboa bada, EEEko zuzendari nagusiak inbertsioaren amaierako Ebazpena emango du, erakunde onuradunari dagokion aurrerakin itzulgarriaren behin betiko zenbakia adierazita. Ebazpen hori Finantzen Euskal Institutuari helaraziko zaio bidezkoa den moduan jardun dezan, Oinarri hauetan eta mailegu-kontratuan ezarritako baldintzen arabera. Jakinarazpena onuradunari ere helaraziko zaio.

Behin aurkeztutako dokumentazio justifikagarria egiaztatu ondoren, honako hauetako bat atzematen bada:

- Aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoak hasiera batean emandakoa baino txikiagoa izan beharko luke;
- Eskatutako dokumentazio guztia ez da dagokion epearen barruan aurkeztu;
- Aurrerakinaren xede den edo diren jarduketa edo jarduketak egikaritu izana ez da akreditatu, ezta horien fakturazioa eta ordainketa ere, oinarri hauetan xede horretarako aurreikusitako epeen barruan;
- Oinarri hauetan eta/edo dirulaguntzen alorrean ezarritako araudian bildutakoez bestelako edozein baldintza ez da bete;

EEEk, dagokionaren arabera, aurrerakina guztiz edo partzialki errebokatzeko eta/edo itzultzeko eta Finantzen Euskal Institutuak amortizazio osoa edo partziala ebazteko espediente bat irekiko da.

16. Aurrerakinak itzultzea

16.1 Aurrerakin itzulgarri gisa ordaindutako zenbatekoen itzulketak finkoak izango dira eta aldiari behin gauzatuko dira, Finantzen Euskal Institutuaren kontu batean.

16.2 Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera gauzatuko dira itzulketak, eta, proiektu bakoitzaren ezaugarri propioei dagokienez, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpenean eta aurrerakin-kontratuan ezarritakoaren arabera.

Horri dagokionez, 10.2 oinarrian jasotakoarekin bat etorritik, aurrerakinaren itzulketa gauzatuko da eskaera bakoitzean proposatutako inbertsioa itzultzeko («pay-back») aldiaren arabera eta hartan jasotako jarduketa guztietarako, gehienez ere zazpi (7) urte izanik inbertsioak egikaritzeko gehieneko epea amaitzen denez geroztik.

Erakunde onuradunak Finantzen Euskal Institutuari zenbateko aurreratua itzultzen hasi beharko du, EEEko zuzendari nagusiak inbertsioa amaitzeko emandako ebazpena Finantzen Euskal Institutuari eta onuradunari berari formalki jakinarazi eta hurrengo hiru (3) hilabeteetan, zenbateko bereko hiruhileko ordainketa linealen bidez egingo da.

16.3 Dagokion itzulketaren ordainketan berandutzen bada, hirurogei (60) eguneko epea amaiturik Finantzen Euskal Institutuak ebazpen bat emango du diru-bilketa borondatezko epearen barruan gauzatzeko, eta, hori lortzen ez badu, premiamendu-bidera joko du berreskuratzeko prozedurari hasiera emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.



16.4 Onuradunak ordainketa-egutegia aldatzeko eskatzen badu borondatezko aldian itzultzeko epea amaitu baino lehen, Batzordeak balioetsi egingo du. Baiesten bada, eskaera onartuko da Finantzen Euskal Institutuko Zuzendaritzak emandako ebazpen baten bitartez, non aurrerakin itzulgarriaren baldintza berriak jasoko diren, une horretatik aurrera indarrean egongo direnak eta oinarrietan zein aurrerakina emateko ebazpenean aurreikusitakoa errespetatu beharko dutenak. Ondoren, Finantzen Euskal Institutuak eta onuradunak aurrerakin itzulgarriaren baldintza berriak antolatzeari ekingo diote.

16.5 Urteko itzulketak egindakoan, Finantzen Euskal Institutuak likidazio-txosten bat idatziko du, Finantzen Euskal Institutuaren alde edo aurka egon litezkeen aldeak jasota; dagokionean, egon litezkeen interesen aplikazioa ere jaso beharko du.

- a) Finantzen Euskal Institutuaren aldeko diru-aldeak ahalik eta lasterren itzuliko dira behin detektatu ondoren, onuradunak dispozizioetarako akreditatutako kontuan edo ondoren adierazitakoan edo akreditutakoan ordainduz, sortzen den hurrengo itzulketan konpentsatuta eta behin betiko likidazioan ezarritakoari jarraikiz.
- b) Aldeak Finantzen Euskal Institutuaren aurkakoak badira, onuradunak autolikidazio okerra egin zuen egunetik aurrera dagozkion interesak aplikatuko zaizkio.

Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.

17. Aurrerakinaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Aurrerakinaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak eta Finantzen Euskal Institutuak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalik dituzte, bai eta egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri atera ere. Nolanahi ere, EEEk eta Finantzen Euskal Institutuak beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio guztia eskatu ahal izango dute; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Aurrerakinaren xede den jarduketa «in situ» egiaztatzea beharrezkotzat jotzen den onuradunei alde aurretik idazki bat bidaliko zaie haren berri emateko EEEren aldetik, eta jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEk onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEErekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat ezartzeko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebotatzeko espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta ondorioztatzen bada emandako aurrerakinaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola aurrerakinik jasotzea, kasuan-kasuan, Finantzen Euskal Institutuak ebazpen bat emango du aurrerakina partzialki edo erabat itzultzeko, baita itzuli beharrik gabeko laguntza itzultzeko ere, hau da, aurrerakin-programa honetan aurreikusitako finantza-mekanismoaren bidez interesak ordainduz saihestutako zenbatekoa, merkatu-interesaren araberrako mailegu batekin konparatuta, egoki litezkeen legezko ekintza eta zigorrei kalte egin gabe.

18. Onuradunaren betebeharrak

Deialdi honen bidez araututako aurrerakinaren onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako aurrerakin itzulgarria onartzea. Ildo horretan, dirulaguntzaren emakidaren jakinarazpena jaso eta hamabost (15) egun balioduneko epean onuradunak dirulaguntzari esanbidez eta idatziz uko egiten ez badio,



onartutzat hartuko da aurrerakina, nola alderdi ekonomikoan hala Ebazpenean, Kontratuan eta aurrerakin-deialdi honetan jasotako gainerako baldintzetan ere.

- c. Aurrerakina zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Auzitegiari, EEeri eta Finantzen Euskal Institutuari beren eginkizunak betez eskatutako informazioa ematea, deialdi honen kargura jasotako aurrerakin itzulgarri dagokienez.
- e. EEeri, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- f. Inbertsioak, aplikatzekoak zaizkion Erregelamendu eta Araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagai organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, onuradunak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua indarreko araudi aplikagarriari erabat egokitzen zaiola, araudi hori tekniko, hirigintzako edo beste edozein alorretakoa izan.
- g. Emandako aurrerakina oso-osorik itzultzea oinarri hauetan, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpenean eta dirulaguntzen alorreko araudian aurreikusitakoa betez.
- h. Instalazioa zuzen eta funtzionamendu-egoera egokian mantentzea, gutxienez, aurrerakin kontratuan aurreikusitako itzulketa-epean.

Salbuesenez, epe hori bete ez bada, onuradunak erabakitzen badu aurrerakinaren xede diren instalazioak eta/edo ekipoak besterentzea:

1. Besterentze hori gauzatu nahi bada Programa honen **2.1 oinarrian** jasotako hirugarren batekin, salmentaren kontratu-dokumentuan espresuki adierazi beharko da instalazio eta ekipamendu horiek laguntza jaso dutela toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko Gauzatu Energia programaren bitartez, eta eskuratzailerak bere gain hartzen duela, gutxienez aipatutako epea bete arte, ondasunak aurrerakina ematean aintzat hartu zen xederako erabiltzea, eta instalazioa funtzionamendu-egoera egokian eta EAEko lurraldearen barruan mantentzea.
2. Aldiz, besterentze hori gauzatu nahi bada Programa honen **2.1 oinarrian** jasota ez dagoen hirugarren batekin, Kontratua guztiz amortizatu beharko da besterentzearen aurretik.
Kasu horretan, besterentze hori EEeri jakinarazi beharko zaio, gehienez hilabeteko epean aurrerakin itzulgarriaren xede diren instalazio eta/edo ekipamenduak saltzeko kontratu-dokumentua sinatzen denez geroztik.
Aipatutako besterentze-eskakizunak betetzen ez badira, aurrerakinaren onuradunak bere gain hartzen du, eman eta jarri ondoren itzultzeke dagoen aurrerakinaren zenbatekoa ez ezik, itzuli beharrik gabeko laguntza ere itzultzea, hau da, aurrerakin-programa honetan aurreikusitako finantza-mekanismoaren bidez interesak ordainduz saihestutako zenbatekoa, merkatu-interesaren arabera mailegu batekin konparatuta. Kasu horietan, EEEk eta Finantzen Euskal Institutuak zenbateko osoa itzultzeko dagokion ebazpena emango dute.
- i. Onuradunak bere gain hartzen du, EEeren eskaerari erantzunez, erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri ematea eta horien zabalkundea baimentzea, Kontratuan aurreikusitako itzulketa-epean.
- j. Aurrerakina ematearekin zerikusia duen edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren berri ematea EEeri.
- k. Aurrerakina ondo erabiltzen dela ikuskatzeko EEEk eska diezaiokeen informazio guztia ematea.
- l. EEeren informazio- eta komunikazio-betekizunak behar bezala betetzeko aurrerakinaren onuradunei ematen zaizkien jarraibideak zehaztuko dira jarraian, laguntza publikoa jasotzeari dagozkion betebeharrak benetan betetzeko bete beharrekoak.

Gauzatzen diren informazio eta komunikazioko neurri eta ekintza guztietarako, onuradunak EEeren eta Finantzen Euskal Erakundearen laguntza aitortu behar du. Horretarako:

- Paperezko euskarrian, webgunean, APPan edo ikus-entzunezkoan egiten diren ekintza guztietan espresuki adieraziko da proiektu horrek dirulaguntza bat jaso duela EEeren Euskadiko toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarri Gauzatu Energiaprogramaren barruan. EEeren eta Finantzen Euskal Institutuaren logotipoa erantsiko da horietan. Logotipo horiek dagozkion webguneetan egongo dira eskuragarri.
- Aurrerakinaren xede den proiektua komunikabideetan sustatzeko helburua duten komunikazio-ekintza guztietan espresuki adierazi beharko da proiektu hori EEeren eta Finantzen Euskal Institutuaren laguntzen jabe dela, eta EEeri emango zaio komunikazio-ekintza hori egikaritu izanaren berri.
- Kartel bereizgarri bat jarriko du aurrerakinaren xede den instalazioaren garrantziko toki batean, erraz ikusteko moduan eta EEEk eta Finantzen Euskal Erakundeak ezarritako baldintzetan.



m. Diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa EEEren eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.

19. Atzera egitea eta uko egitea.

Aurrerakinen eskatzaileak bere eskaeran atzera egiteko aukera izango du, eta atzera-egite hori eskatutako aurrerakina emateko edo ukatzeko Ebazpena jakinarazi aurretik gauzatu beharko da, EEEko Zuzendaritzako titularrari idazki bidez aurkeztuz, azken horrek, Ebazpen bidez, atzera-egitea guztiz onartu eta prozedura amaitutzat hartuko duelarik.

Aurrerakinaren onuradunak ukatu ahalko du emandako finantzaketa, edo Kontratua alde aurretik ezereztu, honela:

a) Emandako aurrerakina onartu ondoren eta Kontratua formalizatu aurretik.

Ukoa idazki bidez aurkeztuko zaio EEEko Zuzendaritzako titularrari, eta hark, ebazpen bidez, ukoa onartuko du eta prozedura amaitutzat hartuko. Behin ukoa onarturik, onuradunak automatikoki galduko du emandako aurrerakinari aitortutako eskubidea.

b) Emandako aurrerakina onartu, Kontratua formalizatu eta aurrerakina ordaindu ondoren.

Ezerezte aurreratua idazki bidez aurkeztuko zaio Finantzen Euskal Institutuko Zuzendaritzako titularrari, eta azken horrek, ebazpen bidez, ezerezte aurreratua onartuko du. Behin ezerezte aurreratua onarturik, onuradunak automatikoki galduko du emandako aurrerakinari aitortutako eskubidea, eta itzulketa gauzatu du Kontratuan ezarritako baldintzak betez. EEEK, ebazpen bidez, ukoa onartu eta prozedura amaitutzat hartuko du. Behin ukoa onarturik, onuradunak automatikoki galduko du emandako aurrerakinari aitortutako eskubidea.

20. Ez-betetzeak eta itzulketak

Jasotako zenbateko osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio, aurrerakina ordaintzen zaion unetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

Itzulketa partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan, kasu bakoitzean honako hauek aintzat hartuz: (i) Programa honetan aurreikusitako xedeak eta helburuak betetzea, (ii) jarduketa subentzionagarrien egikaritze materiala, eta (iii) diruz lagundutako jarduketegi dagozkien zenbatekoen ordainketa.

Aurrerakinen deialdi honetan ezarritako betekizunak ez betetzea, eta bereziki, finantzatu beharreko inbertsioak epean eta behar bezala ez egikaritzea edo sortutako itzulketak ez gauzatzea, edota gainerako arau aplikagarriak edo aurrerakin itzulgarria emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta dagokion ez-betetze espedienteak ireki ondoren, errebokatzea eragingo du horrek, eta aurrerakina itzuli egin beharko litzaiolke Finantzen Euskal Institutuari, berandutze-interessekin batera. Hori guztia, Legegintzako 1/1997 Dekretuan eta *EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Tituluan* horri dagokionez ezarritakoa betez.

Errebokatzeko espedienteak ireki eta ebaztea EEEko zuzendari nagusiaren ardura izango da, eta aurrerakinen itzulketa partzialaren edo osoaren ebazpenak, berriz, Finantzen Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren ardura.

21. Eskatzaileei informatzeari buruzko klausula

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) Tel.: 94.403.56.00 Harremana DBD: dpd@eve.eus



DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalgo dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Lagapenen hartzaileak	Kontrol-arloko eta kontrol-alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko edo lokalak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak balia ditzakete edota EEEn DBDarengana idazki bidez zuzendu, « <i>datuak babesteko eskubideak egikaritzea</i> » adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera balia daitezkeen neurrian. Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEEn eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEEn datu pertsonak behar bezala lagatzeko.	

22. Azken xedapenak

1. EEEn erabakiek izaera administratiboa dute, eta EEEk kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. Toki-administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien Gauzatu Energiaprogramaren deialdi honetatik eratorritako laguntzen xede diren instalazioetako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEk.
3. Eskaeraren kudeaketan akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu eskaera onartu edo atzera botatzean eta/edo EEEk eman beharreko aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa zehazteko garaian, erantzukizuna onuradunarentzat izango da soilik. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa izanik ere, aurrerakin itzulgarria emateko Ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du haren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa;
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa.
 - 254/2020 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
 - 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta haren kontrol- eta erregistro-prozedurari buruzkoa.
 - 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarriko prozedura onartzen duena.
 - 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kanpo-argiteriako instalazioetarako energia-efizientziari buruzko Erregelamendua eta haren EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide teknikoak onartzen dituena.



- 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, Batzordearena, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (EBAO 2014 L 187).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta,
- Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.